

<p><b>ARRASATEKO UDALAK 2025. URTERAKO EZARRI DITUEN DIRULAGUNTZA PROGRAMEN DEIALDI IREKIA.</b></p>	<p><b>CONVOCATORIA PÚBLICA DE LOS DIFERENTES PROGRAMAS DE SUBVENCIONES ESTABLECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE PARA EL AÑO 2025.</b></p>
<p><b>ZIOEN AZALPENA</b></p>	<p><b>EXPOSICIÓN DE MOTIVOS</b></p>
<p>Arrasateko Udalak dirulaguntzak eta laguntzak ematea jasotzen du 2025eko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan. Laguntza horien bidez, udal interesekotzat jotzen diren alor eta diziplinetan hainbat elkartek eta entitatek egiten dituzten askotariko ekintzak babestu nahi dira, dela erakunde publikoek landu ez dituzten ekimenak direlako dela erakunde horiek lantzen dituzten ekintzen osagarriak direlako.</p>	<p>El Ayuntamiento de Arrasate contempla en los presupuestos municipales aprobados para el ejercicio 2025 la concesión de subvenciones y ayudas destinadas a colaborar en las múltiples actividades que asociaciones y entidades diversas desarrollan en diferentes ámbitos y disciplinas consideradas de interés municipal, bien por tratarse de iniciativas no abordadas desde las Instituciones Públicas, o bien porque tienen un carácter complementario respecto de las abordadas por estas.</p>
<p>Eman beharreko dirulaguntzen bidez, Udalak zenbait alorretan esku hartzen lagundu nahi die elkarte eta entitate horiei; esaterako, kirola eta kultura sustatzen, irakaskuntzan kalitatea hobetzen, euskararen erabilera bultzatzen, udal kudeaketan herritarren parte hartze aktiboa sustatzen, borondatezko lana sustatzen, garatu gabeko herrialdeetan lankidetzak proiektu solidarioak egiten, hirugarren adinekoak beren interesen kudeaketan dinamizatu eta inplikatzeko, kohesio soziala sustatzen eta hobetzen, ekonomikoki gaizki dabilzan taldeei laguntzen, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bultzatzeko ekintzak egiten, bai eta gazte elkartegintza, iraunkortasuna, ingurumen hezkuntza eta ingurumen kontzientziarazioa eta enplegu sorkuntza bultzatzen ere.</p>	<p>A través de las subvenciones a conceder se pretende colaborar con dichas asociaciones y entidades en la intervención en diferentes ámbitos, como pueden ser la promoción del deporte y la cultura, la mejora de la calidad en la enseñanza, el fomento del euskera, la participación activa de la ciudadanía en la gestión municipal, el fomento del voluntariado, la ejecución de proyectos solidarios de cooperación en países no desarrollados, la dinamización e implicación de la tercera edad en la gestión de sus intereses, la promoción y mejora de la cohesión social, las ayudas a colectivos económicamente desfavorecidos, actuaciones para promover la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, el asociacionismo juvenil, la sostenibilidad, la educación y concienciación medioambiental y la generación de empleo.</p>
<p>Horregatik guztiagatik, Arrasateko Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du, proiektuetarako laguntzak eta dirulaguntzak emateko, 2025eko urtealdian egitekoak.</p>	<p>Por todo ello, el Ayuntamiento de Arrasate realiza, en el marco de sus recursos presupuestarios, convocatoria pública de libre concurrencia para ayudas y subvenciones a proyectos a desarrollar a lo largo del ejercicio 2025.</p>

<p>Deialdi honek hainbat dirulaguntza jasotzen ditu agiri bakar batean, dirulaguntzak hartuko dituzten elkarte eta entitateei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. 28 programa jasotzen dira beste horrenbeste eranskinetan. Programa horietan, hain zuzen, Udal sail hauek beren eskumenen eremuan ematen dituzten laguntzak sartzen dira:</p>	<p>La presente convocatoria reúne en un único documento el resto de las líneas de subvención a conceder en régimen de concurrencia competitiva, con el fin de procurar a las asociaciones y entidades destinatarias de las ayudas económicas una única referencia normativa, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes. Se contemplan, recogidas en otros tantos anexos, hasta 28 diferentes programas, que incluyen las ayudas que conceden en el ámbito de sus competencias, las siguientes Áreas Municipales:</p>
<p>1.- Kultura</p>	<p>1.- Cultura</p>
<p>2.- Euskara</p>	<p>2.- Euskera</p>
<p>3.- Ongizatea</p>	<p>3.- Bienestar</p>
<p>4.- Gazteria</p>	<p>4.- Juventud</p>
<p>5.- Ingurumena</p>	<p>5.- Medioambiente</p>
<p>6.- Tokiko merkataritza</p>	<p>6.- Comercio local</p>
<p>7.- Enplegua</p>	<p>7.- Empleo</p>
<p>8.- Hezkuntza</p>	<p>8.- Enseñanza</p>
<p>9.- berdintasuna</p>	<p>9.- Igualdad</p>
<p>10.- Kirola</p>	<p>10.- Deportes</p>
<p>Deialdi honetan hauek ezartzen dira:</p>	<p>En la presente convocatoria se establecen:</p>
<p>1. Oinarri orokorrak, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera –Udalbatzarrak 2004ko uztailaren 26an behin betiko onartua–, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, laguntzak jasotzeko zenbateko globala, eman beharreko zenbatekoa, dirulaguntza zertarako den justifikatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta abar.</p>	<p>1. Bases generales, de conformidad con lo establecido en la Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones, aprobada definitivamente por el Ayuntamiento Pleno el 26 de julio de 2004, y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que fijan las disposiciones generales comunes a todas las convocatorias, procedimiento a seguir para la solicitud, beneficiarias, requisitos exigidos a las personas solicitantes, plazos de presentación, importe global destinado a estas ayudas, concesión, justificación del destino de la subvención, abono de las subvenciones, etc.</p>
<p>2. Oinarri espezifikoak, sail bakoitzak bere eskumeneko alorretan ezartzen dituenak, non laguntza programa bakoitzaren berezitasunak zehazten diren, hala nola dirulaguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.</p>	<p>2. Bases específicas, que cada área establece, dentro de los ámbitos de su competencia, donde se concretan las particularidades de cada programa de ayudas, entre otras, los criterios de asignación y reparto de la subvención, la posibilidad de concesión de anticipos, documentación a presentar, etc.</p>

<b>OINARRI OROKORRAK</b>	<b>BASES GENERALES</b>
<b>I. XEDEA</b>	<b>I. OBJETO</b>
<b>1. artikulua</b>	<b>Artículo 1.</b>
Oinarri hauek 2025. urterako dirulaguntzak eta laguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute; horren kudeaketa Arrasateko Udalari dagokio.	Estas bases regulan el procedimiento general para la concesión de subvenciones y ayudas para el año 2025, cuya gestión corresponde al Ayuntamiento de Arrasate.
<b>2. artikulua</b>	<b>Artículo 2.</b>
Oinarri eta deialdi hau N25/00686 zenbakidun eta 2025/03/07 datako Alkatearen Dekretu bidez onartu da, Ogasun Batzordearen proposamenez.	Estas bases y esta convocatoria han sido aprobadas mediante Decreto de Alcaldía de fecha 07/03/2025 y nº N25/00686 a propuesta de la Comisión de Hacienda.
Oinarriok behar bezala zabaldu eta iragar daitezten, deialdi desberdinen iragarkiak argitaratuko ditu Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.	Para garantizar la adecuada difusión y publicidad de las presentes bases se procederá a la publicación de los anuncios de las convocatorias en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
Horretaz gain, deialdiei buruzko informazio eta dokumentazio guztia udalaren webgunean ( <a href="http://www.arrasate.eus">www.arrasate.eus</a> ) eta BAZ zerbitzuan (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua) – Udaletxeko Erregistro Orokorrean egongo da eskuragarri, ordutegi ofizialetan.	Además, toda la información y documentación relativa a las convocatorias estará disponible en la página web municipal ( <a href="http://www.arrasate.eus">www.arrasate.eus</a> ) y en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía)-Registro General del Ayuntamiento en sus horarios oficiales.
Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, Udalak Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalari jakinaraziko dio ondoko informazioa: dirulaguntzaren oinarri erregulatzailerak, deialdia, inputatzen diren programa eta aurrekontu kreditua, eta dirulaguntzen helburua.	En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Ayuntamiento remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información relativa a las bases reguladoras de la subvención, la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputan y el objeto o finalidad de la subvención.

<p>Era berean, deialdia ebatzi ondoren, Udalak Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalari jakinaraziko dio ondoko informazioa: onuradunen zerrenda, emandako eta onuradunak benetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoa eta hala badagokio, itzultzeko eta/edo ezarritako zigorren ebazpena.</p>	<p>Igualmente, y una vez resuelta la convocatoria, el Ayuntamiento remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información relativa a la relación de beneficiarios/as, el importe de las subvenciones otorgadas y efectivamente percibidas, y en su caso, las resoluciones de reintegro y/o de sanciones impuestas.</p>
<p><b>3. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 3.</b></p>
<p>Dirulaguntza hauek emateko eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.</p>	<p>La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y entidad beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.</p>
<p>Ez bada oinarri espezifikoek berariaz beste erregulazio mota bat ezartzen dutela, oinarri orokor hauek xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie udalaren laguntza edo dirulaguntza programa guztiei, baita ere, norgehiagoka ez diren beste erregimen batzuetan (izendunak, hitzarmenekoak eta zuzenekoak) emandako dirulaguntzei.</p>	<p>Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en las presentes bases generales serán de aplicación a todos los programas de ayuda o subvención aprobados por el Ayuntamiento, así como a las subvenciones concedidas en otros regímenes diferentes de los de concurrencia competitiva (nominativas, convenio y directas).</p>
<p>Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Arrasateko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta gai honi aplikatu dakizkiokeen indarreko arauak.</p>	<p>En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.</p>
<p><b>II. ONURADUNAK</b></p>	<p><b>II. PERSONAS O ENTIDADES BENEFICIARIAS</b></p>
<p><b>4. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 4.</b></p>
<p>Laguntza jaso ahal izango dute, nagusiki, egoitza eta jardute eremua Arrasaten daukaten pertsonak eta elkarte nahiz entitateek, eta, salbuespen gisa, Udalaren iritziz interesgarriak diren jarduerak edo proiektuak egiten dituzten entitateek, nahiz eta egoitza eta jardute eremua Arrasaten ez izan.</p>	<p>Podrán optar a estas ayudas, principalmente, aquellas personas y asociaciones o entidades que tengan su sede y ámbito de actuación en Arrasate, y, excepcionalmente, aquellas otras entidades que, aun no teniendo su sede o su ámbito de actuación en Arrasate, desarrollen actividades o proyectos considerados de interés por parte del Ayuntamiento.</p>

<p>Elkartek edo entitateek Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan izena emanda egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.</p>	<p>Las Asociaciones o Entidades deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.</p>
<p>Salbuespen gisa, eta dirulaguntza eskabideak 2.000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradunak honako hauek izan daitezke: pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak (publikoak nahiz pribatuak), ondasun erkidegoak eta laguntza edo udal dirulaguntza eskura dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituzten bestelako unitate ekonomikoak edo ondare bereiziak, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan.</p>	<p>Excepcionalmente, y para el supuesto de solicitudes de subvención por importe inferior a 2.000 euros, podrán acceder a la condición de beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, pretendan llevar a cabo proyectos o actividades susceptibles de obtención de la ayuda o subvención municipal.</p>
<p><b>III. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA</b></p>	<p><b>III. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN</b></p>
<p><b>5. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 5.</b></p>
<p>Aurkezten diren laguntza eskabideak Udalak egindako eskabide ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide eredia oinarri arauotan dator eranskin gisara eta interesa duten guztiek eskuragarri izango dute bai BAZen (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua) bai dirulaguntzen izapide administratiboaren ardura duten udal sail eta bulegoetan (besteak beste, Gazteen Informazio Bulegoa, Emakume Txokoa, Musakolako kiroldgia), bai eta udalaren web orrian ere (<a href="http://www.arrasate.eus">www.arrasate.eus</a>).</p>	<p>Las solicitudes de ayudas que se presenten, se redactarán de conformidad con el modelo de instancia elaborado por el Ayuntamiento, que figura como anexo de las presentes bases, que se facilitará a todas las personas o entidades interesadas, tanto en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía) como en los diferentes departamentos y dependencias municipales (entre otras, la Oficina de Información Juvenil, Emakume Txokoa, Polideportivo Musakola) encargados del trámite administrativo de las subvenciones, así como en la página web municipal (<a href="http://www.arrasate.eus">www.arrasate.eus</a>).</p>
<p>Elkarte edo entitate eskatzailearen ordezkariak edo arduradunak aurreko paragrafoan aipatutako eskaera eredia bete beharko du.</p>	<p>La persona representante o responsable de la asociación o entidad solicitante cumplimentará el modelo de instancia citado en el párrafo anterior.</p>
<p><b>6. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 6.</b></p>

<p>Oro har –beste epe batzuk jarrita dituzten laguntza programen salbuespenarekin– HOGEITA HAMAR (30) LAGUNEGUNEKO epean aurkeztu behar dira eskabideak, deialdi bakoitza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.</p>	<p>Con carácter general, y con la excepción de aquellos programas de ayuda que tengan establecidos otros plazos, las solicitudes deberán presentarse en el plazo de TREINTA (30) DÍAS HÁBILES, contado a partir del día siguiente al de la publicación de cada una de las convocatorias en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p>
<p><b>IV. ZER AGIRI AURKEZTU</b></p>	<p><b>IV. DOCUMENTACIÓN A APORTAR</b></p>
<p><b>7. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 7.</b></p>
<p>Eskabidearekin batera eskatzaileak beheko agiri hauek aurkeztuko ditu nahitaez; horrek ez du esan nahi, ordea, laguntza programa bakoitzaren oinarri arau espezifikoetan eskatutako dokumentazioa eta eskatzaileak interesgarritzat jo ditzakeen beste agiri batzuk ere aurkeztu beharko ez direnik:</p>	<p>Las solicitudes deberán ir acompañadas obligatoriamente, sin perjuicio de la documentación que sea exigida en las bases específicas de cada programa de ayudas y de aquella otra que la persona solicitante considere de interés, de la siguiente documentación:</p>
<p>a) Entitate eskatzailearen ordezkariaren edo erantzulearen NANaren fotokopia.</p>	<p>a) Fotocopia del DNI de la persona representante o responsable de la entidad solicitante.</p>
<p>b) Hala badagokio, entitatearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia (IFK).</p>	<p>b) Copia del CIF de la entidad, en su caso.</p>
<p>c) Memoria, diruz laguntzea nahi duen proiektu, jarduera edo programarena. Bertan adieraziko da zer helburu lortu nahi diren proiektu, jarduera edo programa horrekin, eta, eskatzailearen iritziz, zergatik merezi duen Udalaren laguntza edo dirulaguntza jasotzea.</p>	<p>c) Memoria del proyecto, actividad o programa específico que pretende ser subvencionado, con indicación de los objetivos perseguidos con dicho proyecto, actividad o programa, así como de los motivos o razones que, a juicio de quien formula la solicitud, le hacen merecedora de la ayuda o subvención municipal.</p>
<p>d) Gastuen eta sarreraren aurrekontua, diruz lagundu nahi diren proiektu, jarduera edo programa espezifikoena.</p>	<p>d) Presupuesto de Gastos e Ingresos de los proyectos, actividades o programas específicos para los que se solicite la</p>
<p>e) Zinpeko adierazpena. Hala badagokio, bertan adieraziko da tartean beste diru sarrerarik dagoen (kuotak, material salmentak, fakturazioak, beste erakunde batzuen dirulaguntzak eta abar) eta beste sail, erakunde eta abarrei dirulaguntzarik eskatu zaien.</p>	<p>e) Declaración jurada en las que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos (cuotas, ventas de material, facturaciones, subvenciones de otros entes, etc.) y/o solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc.</p>

<p>f) Eskabidearen aurreko urteari dagozkion gastuen eta diru sarrerren likidazio erreala edo aurreikusitakoa (noiz egin duen kontuan izanik), bai entitatearen jarduera orokorrari buruzkoa bai dirulaguntza xede duen proiektu, jarduera edo programa espezifikoiari buruzkoa, baldin eta jarduera horiek aurreko urtean egin badira.</p>	<p>f) Liquidación real o estimada (en función de las fechas en que se haya llevado a cabo) de los gastos e ingresos correspondientes al año anterior al de la solicitud, relativa tanto a la actividad general de la entidad como al proyecto, actividad o programa específico objeto de subvención, caso de que dichas actividades hubieran sido llevadas a cabo el año pasado.</p>
<p>Aurreko urteko dirulaguntzak justifikatzean agiri horiek Udalari entregatu bazaizkio, ez dago dokumentazio hori zertan aurkeztu.</p>	<p>No será necesario presentar esta documentación en el supuesto de haber sido entregada al Ayuntamiento con ocasión de la justificación de las subvenciones correspondientes al año anterior.</p>
<p>g) Gizarte Segurantzarekin, Arrasateko Udalarekin eta haren erakunde autonomoekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin, hala badagokio) zerga betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten enpresak.</p>	<p>g) Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos y la Hacienda Foral (o Estatal si procediera).</p>
<p>Gizarte Segurantzaren ziurtagiriari dagokionez, kotizazioa egitea eskatzen duen lan harremanik ez duten entitateen kasuan, egunean egotearen egiaztatzea barik entitatearen ordezkariaren zinpeko adierazpena egin dezake eskatzaileak, adieraziz lan harremanik ez dagoela, beraz, ezta kotizatzeke obligaziorik ere. Edozelan ere, zinpeko adierazpen hori bat etorri behar da gastuen eta diru sarrerren egiturarekin eta dirulaguntza eskatzeko nahiz dirulaguntza zertarako den justifikatzeko aurkeztutako gainerako agiriekin.</p>	<p>En relación con el certificado de la Seguridad Social, en los casos de aquellas entidades en las que no exista relación laboral alguna que requiera cotización a dicho organismo, la acreditación de estar al corriente podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona representante de la entidad en el sentido indicado (inexistencia de relaciones laborales y, por tanto, de obligación de cotización). En todo caso, dicha declaración jurada deberá ser coherente con la estructura de gastos e ingresos y resto de documentación presentada tanto para la solicitud de subvención como para la justificación del destino de la misma.</p>
<p>Halaber, dirulaguntza eskaerak 3.000 eurotik beherakoak izanez gero, artikuluko g) puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharrean, interesdunaren edo entitatearen ordezkariaren zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du eskatzaileak, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela adierazteko.</p>	<p>Asimismo, en los casos de solicitudes de subvención por importe inferior a 3.000 euros, la documentación solicitada en el punto g) del presente artículo podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona interesada o representante de la entidad de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.</p>

<p>Edonola ere, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28.artikuluari aitortzen duenari jarraiki, herritarrak eskubidea du administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko; beraz, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki jaso behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datu bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.</p>	<p>En todo caso, en virtud del artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas reconoce el derecho del ciudadano a no presentar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o que hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, por lo que la Administración actuante podrá consultarlos u obtenerlos, salvo que el interesado se oponga a ello. Las Administraciones Públicas deben recibir los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados al efecto.</p>
<p>Arrasateko Udala Nisae Euskadiko Administrazioen Seguritasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren parte da. Plataforma hori euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat da, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Arrasateko Udalak udal sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzea eta lortzea ahalbidetzen duten beste sistema batzuk erabiltzen ditu.</p>	<p>El Ayuntamiento de Arrasate forma parte del nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, la Administración Local hará uso de aplicaciones de la red corporativa local u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.</p>
<p>Deialdi honetan honako betekizun hauek egiaztatuko dira bitartekaritza-plataformen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.</li> <li>- Zerga-betebeharretan egunean egotea; betebehar horiek foru-ogasunetan egiaztatuko dira.</li> </ul>	<p>Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de las plataformas de intermediación serán los siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Estar al corriente de las obligaciones frente a la Seguridad Social.</li> <li>- Estar al corriente de las obligaciones tributarias, que se verificarán en las diferentes Haciendas Forales.</li> </ul>



<p>Aipatu egiaztagiria baliadunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo 6 hilabeteetan. Dirulaguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztagiria eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, organo emaileak zuzenean telematikoki eskuratuko du ziurtagiri telematikoa berria edo Euskaditik kanpo tributatzaren duten entitateek berriro aurkeztu beharko dituzte eguneko daudelako egiaztagiria. Beraz, Zergak Euskal Herritik kanpo ordaintzen dituztenek kasuan kasuko Ogasunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.</p>	<p>Dichos certificados tendrán validez durante el plazo de 6 meses a contar desde la fecha de expedición. Si para el momento del pago efectivo de los distintos importes subvencionales hubieran transcurrido más de seis meses el órgano concedente obtendrá de forma directa nuevo certificado telemático o serán las entidades, que tributen fuera del País Vasco, las que deberán presentar nuevamente los certificados de estar al corriente. Por tanto, Quienes tributen fuera del País Vasco deberán presentar siempre los certificados de las Haciendas correspondientes.</p>
<p>Entitateek dirulaguntza eskatzean edo dirulaguntzaren parteak ordaintzean ez badauzkate eguneko Udal Zerga Biltegiari, Foru Ogasunari edota Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko zergak, 10 egun emango zaizkie, horren berri ematen zaien hurrengo egunetik aurrera, betekizun horretan eguneko daudela egiaztatzeko.</p>	<p>A las entidades que en el momento de la solicitud de subvención y de los diferentes pagos no se encuentre al corriente del cumplimiento con Recaudación municipal, Hacienda Foral y/o Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a aquel en que se le comunique tal circunstancia, para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.</p>
<p><b>8. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 8.</b></p>
<p>Eskaerak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.</p>	<p>Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o se valore como incompleta, se otorgará a las personas o entidades interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para subsanar los defectos detectados.</p>
<p>Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, dirulaguntza eskaera ez da onartuko, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo du prozedura.</p>	<p>Transcurrido el plazo concedido sin que éstos hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.</p>
<p><b>9. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 9.</b></p>
<p>Dirulaguntza eskabideak aurkeztu ahalko dira:</p>	<p>Las solicitudes de subvención podrán presentarse:</p>

<p>- Udalaren egoitza elektronikoaren bidez <a href="https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/eskabide-orokorra">https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/eskabide-orokorra</a>)</p> <p>Pertsona juridikoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute)</p>	<p>- A través de la sede electrónica del Ayuntamiento, en la dirección <a href="https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano">https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano</a> (obligatorio para las personas jurídicas)</p>
<p>- Aurrez aurre BAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), pertsona fisikoentzako aukerakoa.</p>	<p>- Presencialmente en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía), opcional para las personas físicas.</p>
<p>- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetan.</p>	<p>- En las demás formas legalmente previstas conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p>
<p><b>BAZ, jendurreko ordutegia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Astelehenetik egubakoitzera: 7:30 – 15:00.</li> <li>- Eguenak: 7:30 – 18:30.</li> <li>- Zapatuan: 9:00 – 13:00.</li> </ul>	<p><b>BAZ, horario de atención al público:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lunes a viernes: 7:30 - 15:00.</li> <li>- Jueves: 7:30 – 18:30.</li> <li>- Sábados: 9:00 - 13:00.</li> </ul>
<p><b>Abuztuaren 1etik 31ra</b> bitartean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Astelehenetik egubakoitzera arte: 8:30–14:00.</li> <li>- Zapatuan: itxita</li> </ul>	<p>Durante el periodo comprendido <b>entre el 1 y el 31 de agosto:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lunes a viernes: de 8:30 a 14:00.</li> <li>- Sábados: cerrado</li> </ul>
<b>V. ERABAKIA</b>	<b>V. RESOLUCIÓN</b>
<b>10. artikulua.</b>	<b>Artículo 10.</b>
<p>Laguntza programaren arabera, dagokion administrazio unitateak edo udal arloak izapidetuko du aurkeztutako eskabidea; beraz, horiek arduratuko dira, beren eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzeaz.</p>	<p>La tramitación de las solicitudes presentadas corresponderá, por razón del programa de ayudas que se trate, a las diferentes unidades administrativas o áreas municipales, que serán las encargadas del examen y evaluación de los proyectos correspondientes al ámbito de sus competencias.</p>
<b>11. artikulua.</b>	<b>Artículo 11.</b>
<p>Proiektuek administrazio unitate edo udal arlo bati baino gehiagori eraginez gero, ikuspegi orokor batetik aztertuko dira, tartean dauden sailek batera sinatutako agiri edo txosten baten bidez.</p>	<p>Caso de solicitudes o proyectos que afecten a programas de ayuda gestionados por más de un departamento o área municipal, se procederá al análisis e informe global del mismo, mediante documento o informe suscrito conjuntamente por las unidades administrativas o áreas implicadas.</p>
<b>12. artikulua.</b>	<b>Artículo 12.</b>

<p>Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gero, gai horretan eskumena duen batzordeburuak, diktamena egin aurretik, eta hala badagokio, akordio proposamena egingo dio organo eskudunari, onar dezan.</p>	<p>Emitido informe por parte de los servicios técnicos correspondientes, la Presidencia de la Comisión Informativa competente por razón de la materia, previo dictamen, en su caso, de esta, elevará la propuesta de acuerdo al órgano competente para su aprobación.</p>
<p><b>13. artikulua.</b></p>	<p><b>Artículo 13.</b></p>
<p>Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.</p>	<p>La resolución de concesión o denegación, según proceda, de la ayuda o subvención deberá ser motivada, y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases de la convocatoria.</p>
<p>Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira xedea, dirulaguntza jasoko duen/duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten eta baita oinarri arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo dirulaguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.</p>	<p>En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a quienes se concede la subvención, su cuantía, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases Generales, en las Bases Específicas correspondientes o en la normativa vigente en el momento de su concesión, y asimismo se indicará, de manera expresa, la relación de solicitudes que han sido desestimadas o rechazadas.</p>
<p>Era berean, horren aurka jarri daitezkeen errekursoak azalduko dira udal erabakian, bai eta zein organo judizialetan aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere; horrek ez du esan nahi, ordea, interesdunek komenigarritzat jotzen duten beste edozein errekurso ere jarri ahal izango ez dutenik.</p>	<p>Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas o entidades interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.</p>
<p>Orobat, dirulaguntzak emateko Alkatezkan onartutako akordioetan, 10 egun naturaleko epea emango zaie onuradunei, onartu dutela adierazi dezaten. Horretarako emandako epean besterik adierazten ez badute, ulertuko da inplizituki onartu dutela.</p>	<p>Asimismo, en los acuerdos de concesión de subvenciones, aprobados por Alcaldía, se otorgará a las personas o entidades beneficiarias un plazo máximo de 10 días naturales, al objeto de que éstas manifiesten su aceptación. Se entenderá que ésta ha sido implícitamente aceptada si en el plazo concedido al efecto no se efectúa manifestación alguna.</p>
<p>Eragin horietarako, desadostasunik egon ez dadin dirulaguntzen egokitzeen artean justifikatu eta likidatzen direnean, desfaseak egoteagatik proiektuaren exekuzioan (25. artikuluan</p>	<p>A estos efectos, cara a evitar discrepancias en los ajustes de las subvenciones en el contexto de su justificación y liquidación, por razón de desfases en la ejecución del proyecto (regulados</p>

<p>erregulatuak) hasieran eskatutakoari buruz, ikusita Udalak esleitutako dirulaguntza eta diruz lagundutako proiektuan jasotako gainerako finantzabideen eboluzioa, laguntza hartzen duen entitateak ikusiko balu aldaketa esanguratsuak egin behar dituela, aurkeztutako proiektuarekiko, gorabehera hori adierazi beharko da dirulaguntza onartzeko tramite horren testuinguruan. Hori guztia, alde batera utzi barik obligazioa dagoela Udalarik jakinarazteko edozein aldaketa egiten denean, diruz lagundutako proiektua exekutatzeari dagokionez, arautua dagoena oinarri-arau hauetako 15. artikuluan, diruz lagundutako jarduera egin bitartean, eta beti frogagiriak aurkeztu baino lehen.</p>	<p>en el art. 25) respecto de lo inicialmente solicitado, si a la vista de la subvención asignada por el Ayuntamiento y de la evolución del resto de fuentes de financiación contempladas en el proyecto subvencionado, la entidad beneficiaria de la ayuda dedujera la necesidad de efectuar modificaciones significativas respecto del proyecto presentado, dicha circunstancia deberá ser puesta de manifiesto en el contexto del mencionado trámite de aceptación de la subvención. Todo ello, sin perjuicio de la obligación existente de comunicar al Ayuntamiento cualquier modificación en relación con la ejecución del proyecto subvencionado regulada en el artículo 15 de las presentes bases, a lo largo del periodo de la actividad subvencionada, y siempre antes de la presentación de la documentación justificativa.</p>
<p><b>14. artikulua.</b></p>	<p><b>Artículo 14.</b></p>
<p>Erabakiak hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Artikulu honetan xedatutako epeari dagokionez, abuztua baliogabeko hilabetetzat hartuko da. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da.</p>	<p>El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones que correspondan será de 2 meses, contado a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes indicado en la presente convocatoria. A los efectos del plazo establecido en este artículo, el mes de agosto se considerará inhábil. Transcurrido este plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá que la solicitud ha sido desestimada.</p>
<p>Helbide elektronikoa emanez gero, horren bidez egindako izapideek Administrazio Prozeduraren Legean jasota dauden ondorioak izango dituzte, jakinarazpenak egiteko prozedurari dagokionez. Nolanahi ere, kontuan izango da gerta litekeela dirulaguntza eskatu duen entitateari egotzi ez dakiokeen akatsen bat egotea. Hala dela egiaztatuz gero, Udalak zuzendu eta bermatu beharko luke legez eska daitezkeen izapideak behar den moduan bete dituela.</p>	<p>En el supuesto de que haya sido facilitada la dirección de correo electrónico, los trámites llevados a cabo por dicho medio surtirán los efectos legalmente previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo respecto de la práctica de notificaciones. Todo ello, sin perjuicio de la posibilidad de error no imputable a la entidad solicitante de la subvención, cuya acreditación supondría la necesidad para el Ayuntamiento de subsanar y garantizar el correcto cumplimiento de los trámites legalmente exigibles.</p>
<p>Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denez.</p>	<p>El Ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, en la forma prevista en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>

VI. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK	VI. OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS
<b>15. artikulua.</b>	<b>Artículo 15.</b>
Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoean jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak dira:	En caso de concesión de subvención, además de las recogidas en las bases específicas, son obligaciones de la entidad beneficiaria las siguientes:
a) Helburua betetzea, proiektua exekutatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.	a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.	b) Justificar ante el órgano concedente, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol organoek egin ditzaketen egiaztatze jardunak eta finantza kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.	c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto estatales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoetara emandako erabilpena justifikatu baino lehen.	d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.
e) Gizarte Segurantzarekin, Arrasateko Udalarekin eta haren erakunde autonomoekin, foru ogasunekin eta Estatuko ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin zerga obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.	e) Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

<p>Eskaeran horren aurka egiten ez badu, Arrasateko Udalak egiaztatu ahal izango du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela, 7.g) artikuluan jasotakoari jarraiki.</p>	<p>En caso de no oponerse a ello en la solicitud, el Ayuntamiento de Arrasate podrá comprobar que el solicitante cumple con sus obligaciones fiscales y de la Seguridad Social, en los términos recogidos en el artículo 7.g).</p>
<p>f) Merkataritza legeek eta onuradunari kasuan kasu aplika dakizkiokeen arloko legeek eskatzen duten bezala edukitzea kontabilitate liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak. Gainera, indarrean dagoen araudiak edo deialdi honek hala eskatuz gero, agiri horiek behar bezala ikuskaturik egon beharko dute. Beharreako izango da, baita ere, dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan eskatzen diren kontabilitateko egoera orriak eta erregistro bereziak edukitzea, egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.</p>	<p>f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, debidamente auditados, si de la normativa vigente o de la presente convocatoria se desprende dicho requisito, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.</p>
<p>g) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.</p>	<p>g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.</p>
<p>h) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko. Neurriotan adierazi beharko da Arrasateko Udalak diruz lagundu dutela. Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:</p>	<p>h) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, en las que se haga constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Arrasate cumpliendo las siguientes condiciones:</p>
<p>- Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, lehentasuna emango zaio euskarari, Euskararen erabilera normalizatzeke azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. artikuluan hizkuntza sustatzeko ezarritako neurriak betez</p>	<p>- Cuando en el marco de la actividad subvencionada se produzcan comunicaciones o publicaciones, se dará preferencia al euskera en las mismas, al objeto de cumplir las medidas de fomento de la lengua establecidas en el artículo 26 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización y uso del euskera.</p>
<p>Orobat, diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzea.</p>	<p>Asimismo, cuando la actividad objeto de subvención implique una relación directa con un conjunto indeterminado de vecinos y vecinas, se garantizará el uso normal del euskera, sin perjuicio del uso del castellano.</p>

<p>Hori guztia, 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoan ezarritakoa betetzeko.</p>	<p>Todo ello en cumplimiento de lo establecido en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.</p>
<p>- Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.</p>	<p>- En los anuncios y comunicaciones asociadas con la actividad, proyecto o programa no se utilizará ni lenguaje ni imágenes sexistas.</p>
<p>Diruz lagunduko diren jardueri buruzko publizitateren bat jarri behar izanez gero, hori guztia egin beharko da “Kale garbiketako udal ordenantza”k xedatutakoaren arabera.</p>	<p>En caso de colocación de publicidad relativa a las actividades objeto de subvención, ésta deberá realizarse conforme a lo regulado por la “Ordenanza Municipal de Limpieza Viaria”.</p>
<p>i) Jasotako fondoak itzultzea, dirulaguntzak eman eta kudeatzea arautzen dituen Udal Ordenantzaren 20. artikuluan jasotzen diren kasuetan.</p>	<p>i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 20 de la Ordenanza Municipal reguladora de la Concesión y Gestión de Subvenciones.</p>
<p>j) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.</p>	<p>j) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.</p>
<p>k) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, Udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.</p>	<p>k) Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del Ayuntamiento.</p>
<p>l) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.</p>	<p>l) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.</p>
<p>m) Adingabekoak parte hartzen duten jardueretan, entitate onuradunak parte hartzen duten langile eta bestelako bolondresen Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiko ziurtagiri negatiboak lortu beharko ditu.</p>	<p>m) En aquellas actividades en que tomen parte menores de edad, la entidad beneficiaria deberá obtener certificados negativos del Registro Central de Delinquentes Sexuales de las personas trabajadoras y/o voluntarias participantes en la actividad.</p>
<p>Udalak edozein momentutan eskatu diezaike entitate onuradunei egiaztatu dezaten obligazio hauek betetzen dituztela.</p>	<p>El Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento a las entidades beneficiarias que acrediten el cumplimiento de estas obligaciones.</p>

<b>VII. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK</b>	<b>VII. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES</b>
<b>16. artikulua.</b>	<b>Artículo 16.</b>
Laguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoean jasotzen direnak izango dira, zeinak oinarri-arau hauen eranskin moduan agertzen diren.	Serán los recogidos en las bases específicas de cada programa de ayudas, que figuran como anexos a las presentes bases.
Hala ere, aintzat hartuko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektuak, neurriak, ekimenak, jarduerak etab. kontuan hartzen dituzten proiektuak.	No obstante, se tendrán positivamente en cuenta los proyectos que incluyan medidas, propuestas, proyectos, actividades etc. encaminados al impulso de la igualdad entre mujeres y hombres.
<b>VIII. DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU KONTZEPTUAK</b>	<b>VIII. CONCEPTOS DE GASTOS SUBVENCIONABLES</b>
<b>17. artikulua.</b>	<b>Artículo 17.</b>
1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak.	1. Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad o proyecto objeto de la ayuda municipal, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido por las diferentes bases reguladoras de las subvenciones.
Denbora inputazioko irizpideari dagokionez, dirulaguntzak emateko deialdia arautzeko arau espezifikoek besterik xedatzen ez badute, ulertuko da gastuak (faktura sortzea eta fakturaren eguna) egiteko epea, oro har, urte naturala bukatzen denean, hau da, abenduaren 31n, bukatuko dela; edo, noizean behingo ekintzen eta ekintza berezien kasuan, dagokion udal akordioan zehazten den justifikazio epea bukatu baino lehen.	En relación con el criterio de imputación temporal, si las bases específicas reguladoras de la convocatoria de concesión de subvenciones no disponen lo contrario, se entenderá que el plazo para la realización de los gastos (devengo y fecha de la factura) termina, con carácter general, con el fin del año natural, 31 de diciembre o, en caso de actividades puntuales, con anterioridad a la finalización del plazo de justificación determinado en el correspondiente acuerdo municipal.
Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar da, bai azpikontratatzeko eskatutako baldintzak bai legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa.	Asimismo, para que un gasto sea considerado subvencionable deberá cumplirse lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con los requisitos exigibles para la subcontratación, así como a lo establecido en el artículo 31 del mismo texto legal.



<p>2. Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, bestelakorik adierazi ezean programa espezifiko bakoitzaren oinarri-arauetan, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:</p>	<p>2. En relación con los conceptos de gasto susceptibles de subvención, salvo indicación en contrario en las bases reguladoras de cada programa específico, para determinada tipología de gasto se establecen las siguientes limitaciones:</p>
<p>- Taldearen, elkartearen edo erakundearen beraren administrazio, antolaketa kostuak edo kanpoko aholkularitzaren gastuak ez dira diruz lagungarriak izango, salbu-eta, zeregin horien zailtasuna dela tarteko, kanpoko aholkularitza kontratatzea edo zeregin horiek egiteko norbere pertsonal administratiboa kontratatzea beharrezkotzat jotzen denean.</p>	<p>- Costes internos de administración, organización y los de asesoramiento externo del club, asociación o entidad, no serán objeto de ayuda o subvención, salvo que, por su complejidad, se considere necesaria la contratación de la oportuna asesoría externa o la contratación de personal administrativo propio para llevar a cabo dichas tareas.</p>
<p>Dena den, salbuespen gisa, gastu kontzeptu hori diruz lagundu ahal izango da, baina horretarako, onuradunak behar bezala eskatu eta justifikatu beharko du beharra duela. Edozein kasutan, gastu kontzeptu horrek ezin izango du gainditu elkartearen %10aren kopurua elkartearen gastu guztiei buruz.</p>	<p>Por tanto, con carácter excepcional, dicho concepto de gasto podrá ser objeto de admisión, para lo cual por parte de la entidad beneficiaria se deberá proceder a la oportuna solicitud y justificación en relación con su necesidad, sin que, en ningún caso, el importe del mencionado gasto pueda suponer un importe superior al 10% de los gastos totales de la entidad.</p>
<p>- Ez dira onartuko Gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, betetzen ez badituzte arauzko baldintzak legezko balioko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko.</p>	<p>- No se admitirán Notas de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.</p>
<p>Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak ematen badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta (BEZa, autonomoetan alta ematea, JEZ, eta abar), fakturaren ordean onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA), urte osoan kobratutako zenbatekoa guztira ez bada 500 euro baino handiagoa, eta gastu ohar edo gastu agiri guztiak batuta, faktura kontsideratzeko eskatu daitezkeen baldintzak betetzen ez dituztenak, ez badira entitatearen gastu guztien % 10 baino gehiago.</p>	<p>Con carácter excepcional, en los servicios o trabajos prestados, con carácter esporádico, por personas que no estén en condiciones de emitir la oportuna factura cumpliendo los requisitos legalmente exigibles (IVA, alta autónomos, IAE, etc.), se admitirá como sustitutivo de la factura la presentación del oportuno recibí por parte del preceptor, en el que conste el nombre y dos apellidos así como su DNI, siempre que el importe total cobrado a lo largo del año no supere la cantidad de 500 euros, y la suma de todas las notas de gasto o documentos que no reúnan los requisitos exigibles para ser considerados facturas no sea superior al 10% de los gastos totales de la entidad.</p>

<p>- Oro har, ez dira onartuko bazkari, afari kosturik, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kosturik, salbu modu nabarian (eta egoki justifikaturik) aurretik identifikatu izan direnak hasieran aurkeztutako proiektuan. Edozelan ere, horiek gorde beharko dute behar den proportzionaltasuna egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan barik entitatearen gastu guztien % 15 baino handiagoa, Udalak dirulaguntza emateko unean berariaz baimendutako salbuespenak izan ezik.</p>	<p>- Con carácter general, no se admitirán costes de comidas, cenas, servicios de hoteles o de hostelería, salvo aquellos que hubieran sido previamente identificados de forma inequívoca (y justificados oportunamente) en el proyecto inicialmente presentado. En todo caso, éstos deberán guardar la debida proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido, sin que puedan suponer un importe superior al 15% de los gastos totales de la entidad., salvo excepciones expresamente autorizadas por el Ayuntamiento en el momento de la concesión de la subvención.</p>
<p>- Ez dira onartuko dirulaguntza izan dezaketen gastu moduan: kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastu partikularrak, eta abar. Kontzeptu horiek jaso daitezke atal bakar batean, “justifikatzen zailak diren gastuak” izenekoan, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango entitatearen gastu guztien % 10 baino handiagoa, Udalak dirulaguntza emateko unean berariaz baimendutako salbuespenak izan ezik.</p>	<p>- No se admitirán como gastos susceptibles de subvención los gastos de kilometrajes, combustible para vehículos, gastos particulares de servicios de telefonía, etc. Dichos conceptos, podrán ser recogidos en un único apartado denominado “gastos de difícil justificación” que no requerirá justificación documental alguna, y en ningún supuesto podrá suponer un importe superior al 10% de los gastos totales de la entidad, salvo excepciones expresamente autorizadas por el Ayuntamiento en el momento de la concesión de la subvención</p>
<p><b>IX. EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA ETA DIRU KOPURU HORREN IZAERA</b></p>	<p><b>IX. IMPORTE MÁXIMO SUBVENCIONES A CONCEDER Y CARÁCTER DE DICHA DOTACIÓN</b></p>
<p><b>18. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 18.</b></p>
<p>Udalak 2025eko ekitaldirako onartu dituzten aurrekontu kopuruen arabera eta batzorde informatzaileek programa desberdinetarako esleitutakoaren arabera, deialdi honetan jasotako laguntzetarako gehieneko diru-kopurua 815.524,00 € da (gerora gehitu edo handitu egin daiteke kopuru hori).</p>	<p>De conformidad con las dotaciones presupuestarias aprobadas el Ayuntamiento para el año 2025, y de las asignaciones para los distintos programas efectuadas por las diferentes Comisiones Informativas, la cantidad máxima (sin perjuicio de su posterior posible suplemento o ampliación) destinada a las ayudas contempladas en esta convocatoria es de 815.524,00 €.</p>
<p>Deialdi honen oinarri-arauetan zehazten da zer diru kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez.</p>	<p>En las bases específicas de la presente convocatoria se concreta la dotación económica destinada a cada programa, así como el carácter ampliable o no de la misma.</p>

<p>Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoean kontrakorik xedatu ezean, aurrekontu kopuru horrek muga izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.</p>	<p>No obstante, con carácter general, y salvo que se disponga lo contrario en las bases específicas, dicha dotación tendrá carácter limitativo y no será susceptible de ampliación dentro del ejercicio.</p>
<p><b>X. ALDI BEREAN BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEKO AUKERA ETA FINANTZAKETA MUGAK</b></p>	<p><b>X. POSIBILIDAD DE CONCURRENCIA CON OTRAS AYUDAS Y LÍMITES DE FINANCIACIÓN</b></p>
<p><b>19. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 19.</b></p>
<p>Oro har, eta laguntza programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrakorik xedatu ezean, onartu egiten da udal dirulaguntza eta beste finantzabide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantzabide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik eta abarretik jasotako dirulaguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.</p>	<p>Con carácter general, y salvo que las bases de cada programa de ayudas dispongan lo contrario, se admite la posibilidad de concurrencia o compatibilidad de percepción de la subvención municipal con otras fuentes de financiación, bien sean ingresos por subvenciones procedentes de otras Administraciones, de particulares, etc., o se traten de aportaciones o cuotas fijadas para la financiación del proyecto o actividad que pretende ser llevada a cabo.</p>
<p><b>20. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 20.</b></p>
<p>Dirulaguntza honetaz gainera beste finantzabide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa muga egindako gastuaren %100 izango da, hau da, Udalaren dirulaguntzarekin ezin izango da, inondik ere, gain finantzaketarik egon.</p>	<p>En caso de concurrencia con otras fuentes de financiación, y salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, el límite de financiación queda establecido en el 100% del gasto producido, esto es, no debe darse una sobre financiación con ayuda económica del Ayuntamiento.</p>
<p>Horri dagokionez, eta dirulaguntzak emateko udal akordioetan, berariaz, bestelako doitze edo erregularizazio sistemarik ez bada adierazten, udalak, dirulaguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain finantzaketarik gertatu ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak.</p>	<p>A este respecto, y salvo que en los acuerdos municipales de concesión de subvenciones se indique expresamente otro sistema de ajuste o regularización, en el pago final o liquidación de la subvención a realizar por el Ayuntamiento, a la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación del importe a abonar, al objeto de que dicha sobre financiación no tenga lugar, con reintegro o devolución, en su caso, de parte o de la totalidad del anticipo abonado, si ello fuera necesario.</p>
<p>Edozelan ere, doitze hori egiteko, kontuan hartuko da hau guztia:</p>	<p>No obstante, cara a la práctica del citado ajuste, se tendrá en cuenta lo siguiente:</p>

<p>- Egoten bada gasturen bat onartu ez dena dirulaguntza moduan, eta aldi berean izan badu diru sarreraren bat gastu horiekin zuzenean zerikusia duena, gain finantzaketaren zenbatekoa kalkulatu eta gero, diru sarrera gutxitu egingo da.</p>	<p>- Caso de que existan gastos que no hayan sido admitidos como susceptibles de subvención que a su vez tengan ingresos directamente relacionados con los indicados gastos, deberá, con carácter previo al cálculo del importe de la sobrefinanciación, practicarse la oportuna minoración del ingreso.</p>
<p>- Udalaz gairik proiektuak izanez gero, hainbat udaleko finantzaturik, denboran errepikatu eta finkatutakoak, gain finantzaketaren egokitzeak eskatzen badu inplikaturako administrazio guztien akordioa, hura atzeratu ahal izango da hurrengo ekitaldira arte.</p>	<p>- Caso de proyectos de carácter supramunicipal, financiados por diferentes ayuntamientos, de carácter repetitivo y consolidado en el tiempo, cuyo ajuste de la sobrefinanciación requiera del oportuno acuerdo de todas las administraciones implicadas, éste podrá ser pospuesto hasta el siguiente ejercicio.</p>
<p><b>XI. MODUA ETA EPEAK DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO. AURRERAKINAK IZATEKO AUKERA</b></p>	<p><b>XI. FORMA Y PLAZOS DE ABONO DE LA SUBVENCIÓN. POSIBILIDAD DE ANTICIPOS</b></p>
<p><b>21. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 21.</b></p>
<p>Dirulaguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du Udalak dirulaguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziatzat. Dirulaguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide ereduaren hark emandako datuen arabera..</p>	<p>El abono de la subvención se realizará, previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió, tomando como referencia las cuantías y los porcentajes, respecto del presupuesto presentado, aprobados por los órganos competentes y se librá a la entidad titular solicitante de la misma, de conformidad con los datos facilitados por ésta en el modelo de solicitud presentado.</p>
<p><b>22. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 22.</b></p>
<p>Dirulaguntza ordaintzeko, kontuan hartuko dira diruz lagundutako jardueraren edo programaren ezaugarriak eta finantza beharrak.</p>	<p>Para el pago de la subvención se tendrá en cuenta las características y necesidades financieras derivadas de la actividad o programa subvencionado.</p>
<p>Oro har, konturako aurrerakinez ordaintzeko aukera onartzen da, eta oinarri arau espezifikoetan beste kopururik adierazten ez bada, ordainketak honela egingo dira:</p>	<p>Con carácter general, se admite la posibilidad de pago de anticipos a cuenta, y salvo que en las bases específicas se señalen otras cantidades, se procederá al abono de la siguiente forma:</p>

<p>- Onartutako kopuruaren %60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak dirulaguntza onartutakoan eta gehienez ere hilabeteko epean, akordioa hartzen den egunetik zenbatzen hasita.</p>	<p>- 60% de la cantidad aprobada, en concepto de anticipo a justificar, una vez aceptada por la persona o entidad beneficiaria la subvención concedida y en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del oportuno acuerdo.</p>
<p>- Gainerako %40, organo eskudunak dirulaguntzaren likidazioa onartutakoan, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.</p>	<p>- 40% restante, una vez aprobada por el órgano competente la liquidación de la subvención, esto es, con posterioridad a la entrega de la documentación y justificación completa y correcta del programa o actividad subvencionada.</p>
<p>Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoei beste arauketarik xedatu ezean, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori, benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.</p>	<p>En el supuesto de que la liquidación presentada fuera por importe inferior al presupuesto de gastos inicialmente presentado, y salvo que las bases específicas dispongan otra regulación, se minorará la subvención aplicando un coeficiente corrector consistente en el porcentaje del importe realmente ejecutado en respecto del importe inicial solicitado y aprobado.</p>
<p><b>XII. EPEAK ETA MODUAK DIRULAGUNTZA ZERTARAKO DEN JUSTIFIKATZEKO</b></p>	<p><b>XII. PLAZOS Y FORMAS DE JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN</b></p>
<p><b>23. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 23.</b></p>
<p>Dirulaguntzen onuradunek nahitaz justifikatu beharko dute jasotako dirua, dirulaguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.</p>	<p>1. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar el destino de los fondos percibidos a la finalidad que sirvió de fundamento para la concesión de la subvención.</p>
<p>2. Laguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoei beste agiri gehigarri batzuk ezarri baditzakete ere, lortutako dirulaguntza justifikatzeko agiri hauek aurkeztu behar dira:</p>	<p>2. Sin perjuicio de que las bases específicas de cada programa de ayuda puedan establecer otra documentación adicional, para la justificación de la subvención obtenida deberá presentarse la siguiente documentación:</p>
<p>a. Udalaren dirulaguntzak 30.000 eurotik gorakoak direnean, finantza egoerak (egoeraren balantzea eta galera-irabazien kontua) aurkeztu behar dira. Kontu agiri horiek dagokion erregistro ofizialean izena behar bezala emanda daukan enpresa eskudun batek ikuskaturik egon behar dute, eta bertan gastuak eta diru sarrerak aipatu</p>	<p>a- Para el caso de subvenciones municipales por importe superior a 30.000 euros. Deberán presentarse los estados financieros (Balance situación y Cuenta de Pérdidas y Ganancias) auditados por empresa competente, debidamente inscrita en el correspondiente registro oficial, en los que</p>

<p>behar dira, bai erakundearen jarduera globalarenak bai diruz lagundutako jarduera edo jarduera berezienak.</p>	<p>deberá hacerse referencia a los gastos e ingresos de la actividad global de la entidad.</p>
<p>Udalak ikusten badu ezinezkoa dela diruz lagundutako jarduerari edo jarduera espezifikoetarako buruzko finantza egoera ikuskatuak aurkeztea, edo zalantzazko balioa dutela irizten badiu, aurrez Udalak horretarako baimena eman eta gero, posible izango da dokumentazio horren ordez dagokion deskargu ekonomikoa egitea, baldin eta ondo adierazten badira benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak, eta baita horiek egoteko erabili diren irizpideak ere.</p>	<p>En caso de coexistencia en la actividad global de la entidad de proyectos subvencionados junto con proyectos que no han sido objeto de ayuda, además de los estados financieros auditados deberá presentarse en relación a los proyectos subvencionados el oportuno descargo económico derivado de su ejecución mismas, con indicación de los gastos e ingresos realmente producidos, conjuntamente con la descripción de los criterios utilizados para llevar a cabo las imputaciones de gasto e ingreso que procedan.</p>
<p>Halaber, diruz lagundutako jardueren azalpen memoria aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, baita lortutako emaitzen balorazioa ere.</p>	<p>Asimismo, deberá presentarse una memoria explicativa de las actividades objeto de subvención que hayan sido llevadas a cabo, junto con una valoración de los resultados obtenidos.</p>
<p>b. Udalaren dirulaguntza 30.000 eurotik beherakoa denean, onuradunek bi aukera hauetako bat erabili ahal izango dute justifikazioa egiteko:</p>	<p>b.- Subvenciones por importe inferior a 30.000 euros. Las personas o entidades beneficiarias de la subvención podrán optar por efectuar la justificación mediante alguna de estas dos posibilidades:</p>
<p>b.1.- 23. artikuluko honetako 2.a hizkian deskribatzen den dokumentazioa, hau da, ikuskatutako finantza egoerak eta egindako jardueren azalpen memoria.</p>	<p>b.1.- La documentación descrita en el nº 2, letra a. del presente artículo 23, esto es, los estados financieros auditados y la memoria explicativa de las actividades desarrolladas.</p>
<p>b.2.- Entitatearen diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria. Bertan jasoko dira egondako gastuak eta diru sarrerak, diruz lagundutako jarduera egitearen ondoriozko gastuen fakturekin batera, eta baita egindako jardueretan lortutako emaitzen balorazioa ere.</p>	<p>b.2.- Memoria de la actividad o actividades subvencionadas, con indicación de los gastos e ingresos habidos, junto con las facturas correspondientes a los gastos derivados de la realización de la actividad subvencionada, así como una valoración de los resultados obtenidos con las actividades llevadas a cabo.</p>
<p>Memoriek, betiere, egindako jardueren gaineko azalpenez gain eta haiei buruzko balorazioaz gain, dokumentazio grafikoa eduki behar dute (kartelak, programak, publizitatea, etab.) eta, egonez gero, baita ikus-entzunezkoa ere (bideoak, argazkiak, etab.).</p>	<p>Las memorias, en todo caso, deberán de contener, además de las explicaciones de las actividades realizadas y su valoración, documentación gráfica (carteles, programas, publicidad, etc...) y audiovisual (videos, fotos, etc...), si la hubiera.</p>
<p>c.- Oinarri-arau espezifikoek beste erregulazio bat ezartzen ez badute, mekanismo sinplifikatu bat ezarri da dirulaguntzak justifikatzeko, 3.000 euro</p>	<p>c.- Salvo que las bases específicas establezcan otra regulación, se establece un mecanismo simplificado de justificación para</p>

<p>baino zenbateko txikiagoa duenean, zeina justifikatu daitekeen laginketa tekniken bidez, ezen entitateak aurkeztu ahal izango dituen diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria eta diru kontuen balantzea (gastuen eta diru sarreren zerrenda, udalak hartarako egindako inprimaki estandarizatuan), biak behar bezala sinaturik entitatearen ordezkariak.</p>	<p>las subvenciones por importe inferior a 3.000 euros, consistente en la posibilidad de ser justificadas mediante técnicas de muestreo, de forma tal que la entidad pueda presentar la memoria de la actividad o actividades subvencionadas y el balance de sus cuentas económicas (relación de gastos e ingresos en impreso estandarizado facilitado por el Ayuntamiento), ambos debidamente firmados por el representante de la entidad.</p>
<p>Gastuen zerrenda horretatik egiaztatuko da, lagina batera aukeratu eta gero udal kontu-hartzaileak eta dirulaguntza kudeatzen duen sailak, eskatu daitekeen gutxieneko izaerarekin, deklaraturako gastuen zenbateko osoaren % 20 baino handiagoko gastu portzentaje bat. Halaber, justifikazioaren testuinguruan sortutako gorabeheretan, faltsutzeagatik, zehaztasun faltagatik edo zuzentasun faltagatik deklaraturako gastu zerrendari buruz, penalizazioaren bat izango da, bai ekitaldiko dirulaguntzaren likidazioan, bai hurrengo bi ekitaldietan laguntzak jasotzeko eskubidean (zigor prozedura izapidetu ondoren, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan adierazitakoaren arabera).</p>	<p>De dicha relación de gastos se verificará, previa elección conjunta de la muestra entre la Intervención Municipal y el departamento gestor de la subvención, con carácter de mínimo exigible, un porcentaje de gastos superior al 20% del importe total de gastos declarados. Asimismo, las incidencias surgidas en el contexto de la justificación, por falsedad, inexactitud o incorrecciones respecto de la relación de gastos declarada, será objeto de la oportuna penalización tanto en la liquidación de la subvención del ejercicio como cara al derecho a obtención de ayudas en los dos ejercicios siguientes (tras la correspondiente tramitación del oportuno procedimiento sancionador, según lo señalado en el Título IV de la Ley 38/2003 General de Subvenciones).</p>
<p>Udalaz gaindiko eremuko proiektuak egiten dituzten onuradunek, baldin eta dirulaguntza ez bada 3.000 euro baino handiagoa eta, aldi berean, emandako udal laguntza ez bada diruz lagundutako jardueraren aurrekontu osoaren % 5 baino handiagoa, aurkeztu ahal izango dute ekitaldian egindako jarduera globaleko memoria, eta horri gehituko zaio laguntza jaso duen ekintzaren proiektu espezifikoaren memoria, azken horren informazio ekonomikoarekin batera (gastuen eta diru sarreren zerrenda, balantzea eta galera-irabazien kontua).</p>	<p>Los beneficiarios que desarrollen proyectos de ámbito supramunicipal, cuyo importe de subvención no exceda de 3.000 euros y a su vez la ayuda municipal concedida no supere el 5% del presupuesto total de la actividad subvencionada, podrán presentar solamente la memoria de la actividad global desarrollada a lo largo del ejercicio más, en su caso, la memoria de la actividad relativa al proyecto específico objeto de ayuda, junto con la información económica correspondiente (relación de gastos e ingresos, balance y cta. de pérdidas y ganancias).</p>
<p><b>24. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 24.</b></p>
<p>Dirulaguntza programek beste egun batzuk ezarri ezean, ondorengo epe hauek ezartzen dira, oro har, dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko:</p>	<p>Salvo que los distintos programas de subvención establezcan otras fechas, se establecen, con carácter general, los siguientes plazos para la presentación de la justificación de las subvenciones:</p>

<p>Agirien euskarriekin (fakturak, etab.) aurkeztu behar direnak: 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen.</p>	<p>Las que deban ser presentadas con soporte de documental (facturas, etc.), antes del 15 de enero de 2026.</p>
<p>Salbuespen gisa, urteko azken bihilekoan egin beharreko jarduera edo programen kasuan, 2026. urteko urtarrilaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira dagozkion frogagiriak.</p>	<p>Excepcionalmente, para el caso de aquellas actividades o programas que vayan a desarrollarse dentro del último bimestre del año, podrá admitirse la presentación de los oportunos justificantes hasta el 31 de enero del año 2026.</p>
<p>Ikuskatutako finantza egoerekin aurkeztu behar direnak: 2026ko maiatzaren 31 baino lehen.</p>	<p>Las que deban ser presentadas con soporte de los estados financieros auditados, antes del 31 de mayo de 2026.</p>
<p>Dena den, kasu honetan, burututako jardueren azalpen memoriari buruzko dokumentazioa aurkeztu behar da 2026ko urtarrilaren 15a baino lehen, lortutako emaitzen balorazioarekin batera.</p>	<p>No obstante, en este supuesto, la documentación relativa a la memoria explicativa de las actividades objeto de subvención que hayan sido llevadas a cabo, junto con una valoración de los resultados obtenidos, deberá ser presentada antes del 15 de enero de 2026.</p>
<p>Dirulaguntzak justifikatzeari buruz dokumentazioa aurkeztu ezean epe barruan, horrek ekarriko du, beste izapiderik egin barik, eskubidea galtzea likidatzeko dagoen dirulaguntzaren diru kopurua kobratzeko, baita ere, dagokion udal sailak ofizios hastea espediente bat, zeinak egiaztatuko duen dirulaguntzako jarduera egin den edo ez (osorik edo zati batean), eta, hala badagokio, egokia den edo ez itzultzea ordainduta dauden aurrerakinak, osorik edo zati bat.</p>	<p>La no presentación en plazo de la documentación relativa a la justificación de las subvenciones, supondrá, sin más trámite, la pérdida del derecho al cobro del importe de subvención que se encuentre pendiente de liquidación, así como el inicio, de oficio, por parte de la unidad administrativa correspondiente del Ayuntamiento, de un expediente tendente a comprobar si la actividad objeto de subvención se ha realizado o no (total o parcialmente), y si, en su caso, procede o no el reintegro, total o parcial, de los anticipos que hubieran sido abonados.</p>
<p>Halaber, errekerituz gero argibideak aurkeztutako justifikazioari buruz edo laguntza kudeatzen duen sailaren txosten teknikoak, ebakutzeari buruzkoa, detektatzen baditu akatsak egokitze edo debideraketa esanguratsua dutenak hasieran emandako laguntzaren artean eta haren bukaerako likidazio proposamenaren artean, laguntza kudeatzen duen sailak entitate onuradunei emango die, udal erabakia hartu baino lehenago, 7 egun naturaleko epe bat, akats horiek konpontzeko edo bidezkotzat jotzen diren argibideak edo justifikazioak aurkezteko. Hori guztia, kontuan izanik errekurtsio bideak daudela eta jarri daitezkeela udal erabakien edo akordioen aurka.</p>	<p>Asimismo, en el supuesto de requerirse aclaraciones respecto de la justificación presentada o de que el informe técnico a evacuar por el departamento gestor de la ayuda, detecte deficiencias que puedan suponer un ajuste o desviación significativa entre la ayuda inicialmente concedida y la propuesta de liquidación final de la misma, por el departamento gestor de la ayuda se otorgará a las entidades beneficiarias, con carácter previo a la adopción de la resolución municipal que proceda, un plazo de 7 días naturales para que puedan subsanarse las mencionadas deficiencias o presentar cuantas aclaraciones o justificaciones se estimen oportunas. Todo ello,</p>



	sin perjuicio de las vías de recurso que procedan contra las resoluciones o acuerdos municipales que finalmente puedan adoptarse.
<b>25. artikulua</b>	<b>Artículo 25.</b>
Onuradunak aurkeztutako zuriketarekin bat, erreparatu beharko zaio laguntza eskaeran jasotako aurrekontuaren eta benetan gauzatutako eta zuritutako kopuruaren arteko aldeari, bai eta proiektuen betetze mailari ere.	De acuerdo con la justificación presentada por el beneficiario, se deberá observar la diferencia entre el presupuesto recogido en la solicitud de ayuda y la cantidad realmente ejecutada y justificada, así como el grado de ejecución de los proyectos.
Horiek horrela, exekuzio maila hauek kontuan izango dira:	Así, se tendrán en cuenta los siguientes niveles de ejecución:
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 75 eta % 100 bitartekoa, eta, beti ere, hasiera baten jasotako jarduera, egitaraua edota helburuak nabarmenki betetzea egiaztatzen bada, laguntzaren xedea osotasunean bete dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 75% y el 100% del presupuesto inicial, y siempre que se acredite un cumplimiento significativo de la actividad, programa u objetivos inicialmente contemplados, se considerará que el objeto de la ayuda se ha cumplido en su totalidad.
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 60 eta % 75 bitartekoa, eta hasiera batean jasotako jarduera, egitarau edota helburuak maila altuan betetzea egiaztatzen bada, laguntza % 75 artekoa izango dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 60% y el 75% del presupuesto inicial y se acredita el cumplimiento de las actividades, programas y/u objetivos inicialmente contemplados, se considerará que la ayuda va a alcanzar el 75%.
- Elkarreak azaldutako eta justifikatutako kostea baldin bada hasierako aurrekontuaren % 40 eta % 60 artekoa, eta hasiera batean jasotako jardueren, egitarauen edota helburuen erdiak betetzea egiaztatzen bada, laguntza % 50 artekoa izango dela ulertuko da.	- Si el coste formulado y justificado por la Asociación oscila entre el 40% y un 60% del presupuesto inicial, y se acredita el cumplimiento de la mitad de las actividades, programas y/o objetivos inicialmente contemplados, la ayuda se considerará de hasta un 50%.
Kasu honetan, eta emandako aurrerakina onartutako dirulaguntzaren %50a baino handiagoa bada, 26. artikuluan eta hurrengoetan jasotako itzulketa prozedura jarraituko da.	En este caso, si el anticipo concedido fuera superior al 50% de la subvención concedida, se seguirá el procedimiento de reintegro previsto en los artículos 26 y siguientes.
- Exekuzio maila % 40 baino txikiagoa baldin bada, laguntzaren obligazioa ez dela bete kontsideratuko da, oinarri orokorren 26.d artikulua araber.	- Si el grado de ejecución es inferior al 40%, se considerará incumplimiento de la obligación de la ayuda, según el artículo 26.d de las bases generales.

<b>XIII. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEA. ITZULKETA KASUAK ETA PROZEDURA.</b>	<b>XIII. INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES. SUPUESTOS DE REINTEGRO Y PROCEDIMIENTO.</b>
<b>26. artikulua</b>	<b>Artículo 26.</b>
1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza interesa (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa) eskatzea, ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:	1. Además de las previstas en el artículo 36 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por razón de la nulidad o anulabilidad de la resolución de concesión, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la ayuda o subvención, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:
a. Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.	a. Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente del destino de los fondos percibidos, en la forma y plazos establecidos.
b. Dirulaguntza, horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketzen baldintzak ezkutatuz eskuratu izana.	b. Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.
c. Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.	c. Incumplimiento de las condiciones impuestas a las personas o entidades beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.
d. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean, oinarri orokor hauetako 25. artikuluan jasotako ñabardurekin.	d. Incumplimiento, total o parcial, de la finalidad para la que fue concedida la subvención, con las matizaciones recogidas en el artículo 25 de estas bases generales.
Horri buruz, kontuan izanik erregulazio ezberdinak daudela, oinarri-arau espezifiko bidez, salbu entitate onuradunak berariaz eskatuta udal akordioa badago beste ildo batean, 13. artikulua azken paragrafoan erregulatutakoaren arabera, dirulaguntzan hasieran onartutako jardueren edo programen % 40 baino txikiagoa bada exekuzio maila, kontsideratuko da ez direla bete obligazioak, eta eskubidea galduko da ordaintzeke dagoena kobratzeko, bai eta aurrerakinak itzultzeko ere lehendik kobratuta badaude.	A este respecto, sin perjuicio de regulaciones diferentes a través de las bases específicas, salvo que a petición expresa de la entidad beneficiaria exista acuerdo municipal en otro sentido en base a lo regulado en el último párrafo del artículo 13, un nivel de ejecución inferior al 40% de las actividades o programas aprobados inicialmente como objeto de la subvención se considerará como incumplimiento de las obligaciones, dando lugar a la pérdida del derecho al cobro de la parte pendiente de abono así como al reintegro de los anticipos que hubieran sido ya cobrados.
e. Organo eskudunen kontrol jardueri uko egitea edo oztupoak jartzea.	e. La negativa u obstrucción a las actuaciones de control por los órganos

<p>f. Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoa xedatutako gainerako kasuetan.</p>	<p>f. En los demás supuestos previstos en las bases específicas de cada ayuda o subvención.</p>
<p>2. Diru-itzulketak Udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.</p>	<p>2. Las cantidades a reintegrar podrán ser exigidas por la vía de apremio, si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen por el Ayuntamiento.</p>
<p><b>27. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 27.</b></p>
<p>1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.</p>	<p>1. Será competente para adoptar la resolución de exigir el reintegro, total o parcial, del importe percibido, el órgano que concedió la subvención.</p>
<p>2. Dirulaguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, laguntza edo dirulaguntza ematen duen organoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.</p>	<p>2. El procedimiento de reintegro de las subvenciones se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, previo informe de la unidad administrativa responsable de su tramitación, o bien a instancia de parte o por denuncia.</p>
<p>3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu egin beharko da, beti ere, interesdunari entzuteko eskubidea.</p>	<p>3. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de audiencia del interesado.</p>
<p>4. Emandako dirulaguntza osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean, premiamenduzko bideari ekingo zaiola.</p>	<p>4. Verificada la indebida aplicación total o parcial de la subvención concedida, el órgano competente dictará resolución que deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación de reintegro, así como la cuantificación del importe que debe devolverse, y forma y plazo para reintegrarlo, advirtiendo de que, en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá a su cobro por vía de apremio.</p>
<p>5. Itzultzeko prozedurari arau hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor prozedurari hasiera eman diezaion.</p>	<p>5. Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.</p>
<p><b>28. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 28.</b></p>

<p>1. Itzultzeko prozedura, dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoen aurka zuzenduko da, edo pertsona fisiko edo juridikoz osatuta dauden baina nortasun juridikorik ez duten taldeetako kideen aurka.</p>	<p>1. El procedimiento de reintegro se dirigirá contra las personas físicas o jurídicas, o contra las y los miembros de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas que no tengan personalidad jurídica, que figuren como solicitantes o beneficiarios de la subvención.</p>
<p>2. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.</p>	<p>2. Para la determinación de la responsabilidad solidaria, o subsidiaria, según proceda, de la obligación de reintegro de la subvención, más los correspondientes intereses de demora, se estará a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
<p><b>XIV. BERMEAK</b></p>	<p><b>XIV. GARANTÍAS</b></p>
<p><b>29. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 29.</b></p>
<p>Oinarri-arau espezifikoek edo dirulaguntza emateko akordio zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik Udalaren aldeko bermerik eskatzea.</p>	<p>Salvo que las bases específicas o los acuerdos concretos de concesión de subvención dispongan lo contrario, no se considera necesaria la exigencia de garantías a favor del Ayuntamiento por razón de las ayudas otorgadas.</p>
<p><b>XV. OINARRI - ARAUEN INTERPRETAZIOA ERREKURTSOAK</b></p>	<p><b>XV. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES Y RECURSOS</b></p>
<p><b>30. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 30.</b></p>
<p>Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, alde zuzenetik programaren arabera txostena egin eta gero.</p>	<p>Las dudas que puedan surgir respecto de la interpretación de estas bases serán resueltas por el órgano competente para la aprobación de la presente convocatoria, la Junta de Gobierno Local, previo informe, en su caso, de la Comisión Informativa correspondiente por razón del programa.</p>
<p><b>31. artikulua</b></p>	<p><b>Artículo 31.</b></p>

<p>Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA jarri ahal izango da nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOaren aurretik eta HILABETEKO epean; edo ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, BI HILEKO epean. Aipatutako bi epeak, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.</p>	<p>Contra el acuerdo de aprobación de las presentes bases, y que es definitivo en vía administrativa, se podrá interponer, con carácter POTESTATIVO, RECURSO DE REPOSICIÓN previo al Contencioso-Administrativo, en el plazo de UN MES o bien interponer directamente RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, contados ambos plazos a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.</p>
<p>Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsio jarri ezingo denik.</p>	<p>Y ello, sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que se estime procedente ejercitar.</p>

ERANSKINAK	ANEXOS
<p>Eranskin hauetan, dir laguntzak emateko eskumena duten sailei dagozkien oinarri-arau espezifikoak jasotzen dira.</p>	<p>Estos anexos recogen las bases específicas correspondientes a cada una de las áreas competentes para otorgar subvenciones.</p>
<p><b>1. eranskina. Kultura saila.</b></p>	<p><b>Anexo 1. Área de Cultura.</b></p>
<p>1.1.- Kultura elkarreentzako dirulaguntza programa, urteko egitarauak edo programa zehatz bat edo batzuk garatzeko.</p>	<p>1.1.- Programa de subvenciones a las asociaciones culturales para el desarrollo de programas anuales o de uno o varios programas específicos.</p>
<p><b>2. eranskina. Euskara saila.</b></p>	<p><b>Anexo 2. Área de Euskara.</b></p>
<p>2.1.- Euskaltegiako euskara ikasleei dirulaguntzak emateko programa.</p>	<p>2.1.- Programa de subvenciones para el aprendizaje de euskera en los euskaltegis.</p>
<p>2.2.- Errotuluak, irudi korporatiboa eta web orria euskaraz jartzeko, enpresen eta komertzioen gastuak finantzatzeko laguntza programa.</p>	<p>2.2.- Programa de ayudas para financiar gastos de empresas y comercios en relación con la colocación de rótulos, elaboración de su imagen corporativa y sitio web en euskera.</p>
<p>2.3.- Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean diharduten euskaltegiak finantzatzeko laguntza programa.</p>	<p>2.3.- Programa de ayudas destinado a financiar euskaltegis que actúan en el ámbito de la euskaldunización y alfabetización de personas adultas.</p>
<p>2.4.- Euskararen erabilera sustatzen duten elkarte eta entitateentzako laguntza programa.</p>	<p>2.4.- Programa de ayudas para asociaciones y entidades que fomentan el uso del euskara.</p>

2.5.- Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen duten herritarrei zuzendutako laguntza programa.	2.5.- Programa de ayudas para las personas que participan en cursos organizados por la Universidad Vasca de Verano.
2.6.- “TicketBAI” fakturazio sistemarako euskarazko softwarea euskaraz jartzen duten entitateei laguntza programa.	2.6.- Programa de ayudas para las entidades que ponen en euskera el sistema de facturación “TicketBAI”.
<b>3. eranskina. Gizarte Ongizateko saila.</b>	<b>Anexo 3. Área de Bienestar Social.</b>
3.1.- Nagusien elkarreentzako laguntza programa.	3.1.- Programa de ayudas para las Asociaciones de Personas mayores.
3.2.- Garapenerako lankidetzak programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) dirulaguntzak emateko programa.	3.2.- Programa para la concesión de subvenciones a Organizaciones No Gubernamentales (ONG) que desarrollen programas de cooperación para el desarrollo.
3.3.- Gizarte ekintzaren arloan diharduten elkarteek dirulaguntzak emateko programa.	3.3.- Programa de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en el ámbito de la acción social.
3.4.- Droga mendetasunen eta beste mendetasun batzuen tratamendurako dirulaguntzak emateko programa.	3.4.- Programa de subvenciones para tratamiento de drogodependencias y otras adicciones.
3.5.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzen laguntzeko dirulaguntza programa.	3.5.- Programa de subvenciones para contribuir al pago del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
<b>4. eranskina. Gazteria saila.</b>	<b>Anexo 4. Área de Juventud.</b>
4.1.- Gazte elkarteek urteko ekintzak eta proiektuak egiteko dirulaguntza programa.	4.1.- Programa de subvenciones destinado a las asociaciones juveniles, para la realización sus actividades y proyectos anuales.
4.2.- Herriko musika taldeek zein bakarlariek grabazioak egiteko laguntza programa.	4.2.- Programa de ayudas destinadas a grupos musicales o solistas locales para la realización de grabaciones.
4.3.- Etxebizitza alokairua ordaintzeko dirulaguntzak gazteentzat.	4.3.- Programa de subvenciones a jóvenes para el pago de alquiler de vivienda.
<b>5. eranskina. Ingurumen saila.</b>	<b>Anexo 5. Área de Medio Ambiente.</b>
5.1.- Talde, elkarte eta entitateek ingurumen arloko jarduerak lantzeko dirulaguntza programa.	5.1.- Programa de subvenciones para grupos, asociaciones y entidades, para el desarrollo de actividades de carácter ambiental.
<b>6. Eranskina. Tokiko Merkataritza</b>	<b>Anexo 6. Comercio Local</b>

6.1.- Eskualdaketak bermatzeko dirulaguntza programa, Arrasateko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetako negozioetan.	6.1.- Programa de subvenciones para la transmisión de los negocios en los sectores de comercio, hostelería y servicios de Arrasate.
6.2.- Merkataritza eta zerbitzu establezimenduentzat tokiko merkataritza sustatzeko dirulaguntza programa.	6.2- Programa de subvenciones para la promoción del comercio local dirigido a establecimientos comerciales y de servicio.
<b>7. eranskina. Enplegu</b>	<b>Anexo 7. Empleo</b>
7.1.- Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzeke 2025eko dirulaguntza programa.	7.1.- Programa de subvenciones 2025 para contratar desempleados/as de Arrasate en empresas del municipio.
7.2.- Arrasateko enpresentzako 2025eko dirulaguntza programa: sortu berriak, negozioen eskualdatzeak eta jardueraren dibertsifikazioa sustatzeko.	7.2.- Bases reguladoras de la concesión de subvenciones 2025 para la promoción de empresas de Arrasate: nueva creación, traspasos de negocio y diversificación de actividad.
7.3.- Ikasten ari diren Arrasateko 25 urtetik gorako langabeentzako 2025eko dirulaguntza programa.	7.3.- Programa de subvenciones de 2025 para personas desempleadas de Arrasate mayores de 25 años que cursen estudios.
<b>8. eranskina. Hezkuntza Saila.</b>	<b>Anexo 8. Área de Educación.</b>
8.1.- Irakaskuntza arautuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeek egindako jarduera eta proiektuetarako laguntza programa.	8.1.- Programa de ayudas para actividades y proyectos realizados por centros docentes sin ánimo de lucro que actúan en la enseñanza reglada.
8.2.- Irakaskuntza arautuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek egindako jarduera eta proiektuetarako laguntza programa.	8.2.- Programa de ayudas para actividades y proyectos realizados por las asociaciones de madres y padres de alumnado de los centros docentes sin ánimo de lucro que actúan en la enseñanza reglada.
8.3.- Irabazi asmorik gabeko elkarteek hezkuntza edo ikaskuntza arloetan egindako jarduera edo proiektuetarako laguntza programa.	8.3.- Programa de ayudas para actividades o proyectos relacionados con la educación o ámbitos de aprendizaje realizados por asociaciones sin ánimo de lucro.
8.4.-Eskola-irteera ekintzetan herriko haur eta nerabeen parte hartzea sustatzeko dirulaguntza programa.	8.4.-Programa de subvenciones para fomentar la participación de los niños, niñas y adolescentes arrasatearras en actividades de salidas escolares.
<b>9. eranskina. Berdintasuneko saila.</b>	<b>Anexo 9. Área de Igualdad.</b>
9.1.- Gizon eta emakumeen artean aukera berdintasuna sustatzen diharduten elkarteek zuzendutako laguntza programa.	9.1.- Programa de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en el

	<p>ámbito de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.</p>
<p><b>10. eranskina. Kirol saila.</b></p>	<p><b>Anexo 10. Área de Deporte.</b></p>
<p>10.1.- Kirol taldeen jarduera arruntari laguntzeko dirulaguntza programa.</p>	<p>10.1.- Programa de subvenciones para la actividad ordinaria de los clubes deportivos.</p>
<p>10.2.- Arrasateko kirol taldeek eta kirol entitateek antolatutako jarduera bereziak eta/edo noizean behingo jarduerak finantzatzeko laguntzen edo dirulaguntzen programa.</p>	<p>10.2.- Programa de ayudas o subvenciones para financiar las actividades extraordinarias y/o puntuales organizadas por clubes y entidades deportivas de Arrasate.</p>